


# UHIN BERRI

**juan san martin**

**UHIN BERRI**



**1964 - 1969 BILDUMA**

*D. L. S. S. 708/69*

ARGITARATZALLEA:

SOCIEDAD GUIPUZCOANA DE EDICIONES Y PUBLICACIONES, S. A.  
de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País y de la  
Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián.

Domicilio provisional: Museo de San Telmo

SAN SEBASTIAN

## AURKIBIDEA

	horri
AGIRRE, José M. <sup>a</sup> .....	121
ALFARO, Gexan .....	97
ARESTI, Gabriel .....	15
ARZE, José Antonio .....	59
AZURMENDI, Jose .....	59
BILBAO, Antonio .....	39
ERDOZAINCY-ETCART, Manex .....	23
ERRAMUZPE, Patxika .....	145
ETXAMENDI, Eñaut .....	27
GARIN, Martín .....	83
INTXAUSTI, Joseba .....	33
INTXAUSTI, Mikel A. ....	117
IRIGARAY, Jose Angel .....	109
IZTUETA, Paulo .....	77
KINTANA, Frantzisko Jabier .....	159
LANDART, Daniel .....	165
LASÁ, Amaya .....	173
LASA, Mikel .....	53
LEKUONA, Julian .....	47
LETE, Xabier .....	127
MUJIKA, Luis M. <sup>a</sup> .....	65
PAGOLA, Manex .....	91
SAIZARBITORIA, Ramon .....	135
SARASOLA, Beñat .....	103
SARASOLA, Ibon .....	151

## HITZAURREA

Garai bakoitzari berea. Euskal poesiak badu uhin berria, gure literaturan bere toki berezia eskatzen duena eta ongi merezi duena. Uhin berri hau gogoan harturik egin dut eskuetan duzun bilduma. Jokera berrien ikus moldetako beharrezkoa ginuen oraingo gazteen poemak liburu batean biltzea. Hoietako batzuek beren liburuak badituzte ere, beste batzuek aldizkarietan banandurik aurkitzen dira eta elkarren ondoan emate honek adieraziko digu egungo gure poesiaren neurria eta joera.

Uhin berri hau mugatzeko ez dut hartu neurri hestuegirik poesia mota aldetik, hala behar bazuen ere. Hoietatik badira, bizpahiru, era berriz hornitu gabeak, baina irakurleak laister hatzemango dio. Begiramendu zabalez hartu bai ditut, behar bada hobeagoeri toki gehiago emanaz. Hautatu diran poesiak ere, hoberenetarik badira ere, ez naiz gehiegi arduratu hautamen zehatzez punterengoak jartzera, baizik poeta bakoitzaren poemagintza taxura batean dierazteko gai direnak.

Hautamen hontan kontuan izan dut idazle bakoitzak duen entzutea, idatzi dituen poema liburu, jaso dituen poesi sari eta abar. Urte-mugak zehatzak jarri ditut: 1964 ingurutik hasi eta geroruntz eza-gutarazi diren poemak; 1930-aren ondorenetik mundura sortu ziren poetenak (1). Bereziki: 1964-eko gizaldi berritzat izendatzen hasi gerana da, gutxi gora-behera.

Zaharragoen artean badira hemen agertzen diren baino poeta era berriagokoak, baina oso gutxi. Hemen oso gutxi diren bezala era zaharreko poesia moldeetan finkaturik jarraitzen dutenak. Horrela ikusi bai dut egungo uhin berria agertzeko erarik hoberena. Urteeri begiraturik, muga horren buru Baionako bilera eta *Harri* eta *Herri* jartzten dira. Intentzio pixka bat izan dut gauza horrela jartzeko; izan ere beste aldarte bat ekarri zigun. Baina, hala ere, lotsagabe aitortu nezake, gaurko mugimendu mizkor hau, lehengo emaitza jatorren bultzadaz heldua dela. Izen gehiegi dira hemen aipatu beharrezkoak, baina norbaitez ahaztutzeak ez luke barkamenik, eta, bestalde, muga zehatzak jartzeak ere bere harriskuak ditu. Kontu honetan, oraingoz behintzat, ez dut nahi hutsak nere lepora hartzerik eta ez noa izenik ematera. Bereziki aipa nezazken Lizardi eta Lauaxeta-ren ondoreneko hamar-hamabi poeta puntarengo, baina irakurleak konprenituko du ezta-la horren premiazkoa uhin berri hau aurkezteko. Euskal poesiaz zerbait arduratu direnen oroimenetan argi finkatuak dauden izenak dira mugimendu berri honen eragile. Baina, inoiz lan luzeago bati oratzen diodanean sartu beharrezkoak izango ditut.

---

(1) Lehenagoko jokerak ezagutu nahi dituenak ikus beza A. Onaindiaren *Milla euskal-olerki eder*, 1954.

Hemen, bereziki, uhin berriaren urratsak adierazi nahi ditut. Zer du beraz, era berri honek, bere giroa zertzen duena? Gazteak aurrez-aurre arkitu duan injustizisko egoeradun gizarte moldakaitza, mundu harrigarria, mundu ustela, gizona menperatzen duena. Hortikakoa du egungo gazteriak bere egon ezina, kezka, griña, larri-aldia..., sinismenaren uste berak ere gogoia betetzen ez diotela. Gizondu orduko gauzak horrela arkitu dituzte, lehengoek jarririk, eta heurok aldatzeko ahalmenik gabe. Horregatik, erantzunez, beren protesta erakusten dute, egoera honen iraultza laket zaielarik. Baina ez uste zintzo ari ez direnik. Mundu honen aurrean gogotik nabari dute beren zintzotasuna. Gazteria beti izan bada bere toleskaitzean zintzoa, gaur egun inoiz baino tinkoago agertzen du dohain hori. Hala agertuko du Maria Lurdes Iriondok kantuz: «Gazte gera, gazte, ta ez gaude konforme».

Maria Lurdes aipatu dugunez gero, esan beharrean naiz era berriko poesia bilduma batean beren tokia merezi dutela berak eta Benito Lertxundik. «Ez dok amairu»-ko kantaririk gehienak heurak sortutako poesiaz ari direlako, baina idazleen bilduma danez, euskal aldizkarietan idaztea ohitura dutenak bakarrik jartzen ditut, eta hauetarik ere ez guztiak, noski. Bestalde, kanta berri hoietakoak, batzuek hemen arkitzen dira talde hortako beste batzuek sartzean, eta hobeto eta gehiago ezagutu nahi dituztenak jakin bezate Hendaiaiko Editions «Hernani»-k argitara zuen *Chansons Basques — Euskal kantuak* (1967) liburuan eta *Euskal kanta berri* izenez L. Urdapilletak gertaturiko bildumatxoa (Iruñe, 1967) arkitzen direla

Nere asmua poesia soila denez, poeta berriak sail batean ezagutzera ematea. Eta honekin lortu ahal dugu gure argitaldrietan le-

ku gehiago ematea, hoietariko bakoitzak bere liburu berezia izan dezan. Hoietariko bakoitzaren bildumak osatuko luteke gaurko euskoen poema nagusia izan daitekean erako zerbait, aberatsa, ugaria, gure literaturaren mugimendua suspertuko lukeana. Poesia izanen baita da gainerako literaturaren gidari.

Inoiz izan baditu euskerak gizaldi berean poeta ugari eta onak, gaur ditu. Giro honen emaitzatik etorriko zaigu gure egungo poesia-ren nagusitasuna. Zeren, gaur, gure poema nagusia goragoko mailan jartzea, gogoan izan, persona handi soiletik ez dela etorriko; egile izugarrien denborak aspaldi igaro ziren, eta gure poema nagusia, ene iduriz, guztion artean betetzeko lana da, askorengandik letorkeana, eta ez bakar batengandik. Hau, gainera, goraka agiri dan gauza da. Gaurko poeta gazteak badu hortaz jabetasuna. Badaki egungo herri-giroaren kontzientziaz jabetutako poemagintzatik behar duela. Giro hori helduaz dioa, gure gazteak arduraz jabetzen dijoazten neurri berean. Eta etorriko ahal da egun bat, asko luzatu gabe, herbesteetan entzute handiagoa izango dana, etzekoen errespeturako ere. Bai; inor bere etxean profeta ez danez, hauzoak bertako askok baino arduratsuago begiratzean etxeoak iratzartuko dituen eguna. Baina egun hortara heltzeko, etxe barneak ere garbitu beharko ditugu, menderatuaz ditugun euskaltzale erdaldunak eta abertzale erdalzaleak. Hauek direlako euskeraren etsairik zuzenenak, beren fedea egintze-kin betetzen ez dutelako.

Bestalde, gaurko gazteengan, hizkuntza bere zilberrari begira jartzeak ez du baliorik. Hauentzat, hizkuntzak gutxi balio du, oso gutxi; zerbait esateko ez bada. Euskal kanta zaharren erara, poesia berri honek, euskerari bere funtzionaltasuna lemaio.



Poesi hizkuntza bera, muina mamitu ahal izateko, oraíndik lan-duagoa behar du izan. Aspalditik datorkigun akatsa dugu hau; garbikeriak herriari, utikan!, esan zionetikakoa. Orain ari da berera igortzen, iturri zaharretara itzultzen, baina oraíndik gehiago itzuli behar du euskal kanta-zaharren erroetara, zeren Euskal Herriak poema nagusirik izatekoan aintzinako herri kantikak bai ditu. Beraz, bertatik edan beharra dute gure poetak.

Gainerontzean, gaurko pentsamenduzko eta ispirituzko sentipenen moldetara eramanez ari dira. Egungo euskal literatura, era guzietara, mundu zabalera antenak jarririk bizi da, eta hala behar du, bereziki euskal poemagintza.

Honek eztu esan nahi lehenagoko erak ere noizbait kanpotik hartuak ez zirenik. Baina kanpoan zaharrez baztertu ondorean ezin geneza gure artean irauntza eman; ez bait da gurean iraun izateko errazoirik. Egunean egungoari lotzea zaigu hoberena.

Uhin berriak dakarrena ezta laister pasatuko dan moda bat, norbaitek uste duen bezala, baizik literaturak bere eboluzioz dakarrena da. Geroari gaurkoaren balioa adieraziko diona. Eta, bere muina, muiunik duenean, sentipen adierazle izanen dire bihotzik dan lekuan oihartzuna arkituko duena.

Garai bakoitzari berea emanez, izan gaitezen gure mendearen seme, eta betorzte gerora uhin berriagoak. Biziaren legea danez, bizi beharrak eskatzen du.

*J. S. M.*





## **gabriel aresti**

*Bilbaon jaioa, 1933-ko urriaren 14-an. Komertzio karreraduna. Poeta eta teatrugilea. Beste zenbait lanen artean, bost teatruren egilea, eta bere poema liburuak dira: Maldan behera, Bilbao, 1960; Harri eta Herri, Zarautz, 1964; Mailu batekin (zatiak), Donostia, 1964; eta Euskal Harria, Bilbao, 1967. Eraman dituen poema sariak: «Loramendi», 1959; «Orixe», 1963; «Lizardi», 1966. Harri eta Herri-kin sortu zuen bere era berezidun poesia soziala, nortasuna emango ziona, eta 1968-an «Iparragirre» izeneko saria jaso zuen lan honegaitik. Gazteen artean bere jarraitzaileak ditu. Zenbait poema «Ez dok amairu»-koak kantatzen dituzte.*

L):

Munduan

gauza bat bakarra dago

erosten eztena:

Dirua.

S):

Irrintzi gorri batekin

estaldu nituen

egunaren eta gauaren

ate meharrak.

Sega zorrotz batekin

ebaki nituen

debekazaleen

aginak.

Gero hil

nintzen.

V):

Esanen dute

hau

poesia

eztela,

baina nik

esanen diet

poesia

mailu bat  
dela.

W):

Egia bat esateagatik,  
alabak  
hil behar bazaizkit,  
andrea  
bortxatu behar badidate,  
etxea  
lurrarekin  
bardindu behar bazait;  
Egia bat esateagatik,  
ebaki behar badidate  
nik eskribitzen  
dudan  
eskua,  
nik kantatzen  
dudan  
mihina;  
Egia bat esateagatik,  
nire izena  
kenduko badute  
euskal literaturaren  
urrezko  
orrietatik,  
inoiz,

inola,  
inun  
ez naiz  
isilduko.

X):

Egun batean  
eztu inork  
ezer erosiko;  
egun batean  
ezta merkatuetan  
sagarrik  
salduko.

Egun batean  
guztiok  
izanen gara  
zoriontsuak.

.....

C):

Siboneitik Kubanakanera  
goajiro h'onek  
egunero janen dut  
nire arroz-aranke pizka,  
egunero moldatuko dut  
nire trokela,  
egunero ikasiko dut

nire aleman  
edo turko  
lezioa,  
egunero hartuko dut  
nire katixima.  
Egunero sentituko naiz  
prestua.  
Eta posible da  
noizean behin  
Ninarekin  
ohean sartzeko  
burges  
pekatua  
kometi dezadala...

K):

Nik ere  
badut  
nire egia,  
eta bankero jaunarenak  
bezainbat  
edo gehiago  
balio du.

N):

Egun batean  
munduak akabatuko dira.

Bai.  
Badakit.  
Eta zeruko Jaunak  
Josafateko zelaian  
guztiok  
juzgatuko gaitu.  
Orduan,  
azkenak  
izanen dira  
lehenak,  
eta haren eskuman  
jarriko dira  
ezkerrekoak.





## **manex erdozaincy-etchart**

*Baxe-nabarreko Oztibarre araneke Ibarla herritxoan sortu zen 1934-ko uztailaren 15-ean. Aita Frantziskotarra. Ezu libururik argitaratu baina bere poesiak, ugari, hor dira aldizkarietan sakabanaturik: Gazte, Gure Herria, Euzko-gogoa, Jakin, Olerti eta abar.*

## MUNDU ZABALERAKO!

1. — Gure lur huntako bizian  
Mundu barneko bideetan  
Gazte indarrak odolean  
Erneta azkar gaiten joan  
Beti ixuriz bihotzetan  
Amodio xorta gozoa!

Dei adarra dut joko  
Gora erabiliko:  
Lot ditela lanari  
Eskual semeak oro  
Mundu zabalerako!

2. — Ilunbeak dira munduan  
Trixtura gogo bihotzetan  
Ibil gaiten batasunean  
Elgarrekin ber urratsean  
Gora atxikiz agerian  
Esperantxaren su berdea!

Dei adarra dut joko  
Gora erabiliko:  
Lot ditela lanari  
Eskual semeak oro  
Mundu zabalerako!

3. — Aspaldinoko mendeetan  
Haritz bat da sortu Gernikan  
Bil gaiten haren inguruan  
Eta xuti oldar gaitzean  
Munduari eskaintzekotan  
Libertatearen hazia!

Dei adarra dut joko  
Gora erabiliko:  
Lot ditela lanari  
Eskual semeak oro  
Mundu zabalerako!

4. — Ez gaiten ito ahalgetan  
Ager burua gorenetan  
Ta lurak ez beretzekotan  
Ez ibil gogo herrestan  
Mundu osoak jakin dezan  
Gure Nortasunaren berri!

Dei adarra dut joko  
Gora erabiliko:  
Lot ditela lanari  
Eskual semeak oro  
Mundu zabalerako!



## **eñaut etxamendi**

*Garaziko Ezterenzubin sortua, 1935-eko agorrilaren 22-an. Agromiako injinierutza eta politika zientziak estudiantu zituen Tolosako (Frantzia) unibersidadean. Euskaltzaindiaren laguntzaileetarikoa da. Enbata eta Herria-n idazten du. Kantaegile bezala anitz ezaguna bada ere, zenbait ipuin berezi eta argitara gabeko nobela baten egilea dugu.*

## IRUZKIA ETZATEN

*Errepika/* Ez dakizu maitia  
nolako zauria  
dautazun idekia...  
Gordez aurpegia,  
gordez aurpegia eta  
nauzu ahantzia!...

### I

Iruzkia etzaten eder da mendian,  
Oroitzapenak zauzkit heldu ingurian...  
Zure begiak ikus ez ditezkenian,  
Iruzkia gal bedi betikotz gauian!...

### II

Herriak xuri dira mendien azpian,  
Oroitzapenak zauzkit heldu ingurian...  
Zonbat leiho dituzte etxeek ibarrian!  
Zuk zeurea dautazu hetsi noizbaitian.

### III

Zerua da dolamen, oi hego aldian,  
Zure begiak ikus ez ditezkenian,  
Izarrak ere trista zauzkit arratsian,  
Argituren ez naute zugarat jitian!...

## IV

Zurubia ehuket xuti leiho-pian...  
Izarrak ere triste zauzkit arratsian,  
Bainan etzait halere histuren bizian  
Amodio zurea ene bihotzian!

## **GARAZTARRA NIZALA**

*Errepika/* Garaztarra nizala diozut nik ere  
Garazin sortu nintzan han nahi gerore  
Mendi oihanez zauzkit oi! begiak bete  
Garazin gaindi, Baigorri gaindi ibil nindaiteke  
Garazin gaindi, Baigorri gaindi banintz orai ere.

## I

Hurrungo leihor batian, gizon bat itsas hegian,  
Bi begiak ortzaizian, galdurik zen ametsian.  
Eskualduna zelakoan, agur egin nionian,  
Altxaturikan burua gora gora erran zaitan:

## II

«Johaki dituk urtiak, nik utzirikan Herria,  
Bahaki zein dolu dutan oi ene bihotza erial!

Garazitik johan nintzan segurki itzultzekotan,  
Untziak dohazkelarik orai nago leihorretan...

### III

«Harat berriz itzultzekotz zerbaitekin behar eta,  
Nik penak bakarrik bildu, nik bizia galdu duta».  
Bere penaren kentzeko Garaziz mintzo nintzaion  
Hego zero bat bezala begia piztu zitzaion.

### IV

Hik Eskual-Herri maitiak, igortzen haitan xoriak,  
Egin ditak bozkaria, bai bihar gohazin biak!»  
Aiher ditiat ikusi berriz Garazin mendiak  
Bai eta pentze berdiak eta herrialde xuriak.

### V

Iristen diren eskualduner lurraren lau eskualdetan,  
Kantu hau hel bekiote izarren hasperenetan.  
Garaziko mendietan kantatzen duten berala  
Errepika hau kantatuz oro botzik dagotzila.



## joseba intxausti

*Gipuzkoako Seguran etorri zen mundura ,1936-ko uztailaren 20-an. Frantziskotar apaizgoa bukatuta Barcelona-n ari da Filosofia eta Letrak estudiatzen. Denbora batean, Arantzazun egoalarik, Jakin-en zuzendarietako bat izan zen. Euskal-aditza, 1960, eta Las siete lecciones del Euskal-aditza, 1965, liburuen egilea da. Hizlaur asko idatzi du baina ez hainbeste bertsoz. Hala ere, 1965-ean Santiago de Compostela-n euskal unibersitarioentzat egin zan poesi sariketan lehendabiziko atera zuen.*



Bakarrik.  
Egunsentiak  
bakarrik  
argitu,  
argitu nau gela bakarrean.  
Argi ta gerizpetan bakardadea baitut ohantze.

## I. — METROAN

«Metro»-rako ba ginen hogei,  
ehun, berrehun...;  
guziokin  
sartu naiz barnera,  
batera,  
bakarrik:  
ausaz ez ninduten bidelagun...

Berriz ere bakardadea zen,  
zijoen,  
nerekin presente.

Ba dire gizon eta andere,  
gazte-algara  
ta esku-emate.  
Ikusi naute  
ta ikusmiratu,  
ta, lehen bezela,

bakardade!  
Bakardade-lurpe!  
Ez bainaiz gizarteko seme!

Begiratu dut:  
ez dut begirik idoro,  
igesi nigandik oro,  
ta nereak —gajoak!—  
guzienganaino, bilaka,  
zoro.

Inguruan,  
trinko,  
giza-sorbalda hesi,  
ta, harrigarri!,  
neretzat ez zuen  
nehork  
belarri,  
ez aurpegi.  
Ez bainintzen gizartean seme.

## II. — TRANBIAN

Tranbiak, gure huritik,  
gizadiz, eder eta opare!,  
hantxe baikera, orpoz-orpo,  
elkarren burrukari ta burkide,

bizitza hertsian,  
arerio ta adiskide.  
...gaur, ordea, ba zuen aulkirik,  
ta, hain zuzen, ondoan bat hutsik.

Ez alferrik!  
Bainan  
gaur,  
hemen,  
atzo,  
bihar  
eta betiko  
aulkia  
beti hutsik.  
Eta  
ni,  
amai  
gabe,  
behingoz  
nere buruaren errotari.

Gizartean ez naute seme.  
Guziek zuten mintza-lagunik,  
ta zenbaitek maitalerik.  
...orok begiratu didate,  
kupitu,  
ta isilpean mintza zaizkit:

—«Gazte,  
gizarajo  
ta fraide!»

Ni,  
jaistean,  
bakarrik.



## **antonio bilbao**

*Morgan (Bizkaia) jaio zan 1937-ko martxoaren 22-an. Fraile ikastaroak egin zituan Arantzazun, baina utzi zituan eta gaur Bilbaon bizi da. Bere poesiak badu Gandiagarenakin kidetasuna, azkenaldikoetan honengandik hurrutituz badijoa ere. Zenbait aldiz saritua izan da; beretarik aipagarrienak 1962 eta 1964-ko «Lizardi» sariak. Poesi liburu bat du argitaratzeke.*

Arimaren arnas bat lez  
urtetan deust txistuak ahotik.  
Txistu egingo dot, zeren besterik eztakit.  
Eztakit ezer be. Maitasuna  
zer dan,  
zer dan  
alegrantzia, errealidadea, egia batez be.  
Eztaukadala zer eginik esan deuste  
eta ezin dot sinistu.

Txistu honen doinua galduko da,  
edo galtzen doa edo badoa.  
Iñoren bihotza ikutuko dauanentz eztakit.  
Ta iñoren bihotzean oihar ez egiteko  
alperrik dagit txistu.  
Baina bardin da.  
Ezta!  
Batzuetan, oraintxe,  
erantzi nahi neukez gauzak  
ikusteko zer daben barruan.  
Batzuetan, oraintxe, erantzi nahi neuke  
neure soinekoa, edo burua,  
oker eginda nagon ikusteko,  
ikusteko oker nagonentz.  
Eztakit doinu hau nondik datorkidan,  
eztakit nire izanaren sustratoa danentz.  
Behar bada, neure alboan, etsaigoa bildu dot  
edo bideak tapeta. Behar bada urkomendira

kondenatu nabe, beharrez, ta barruan  
Herri baten hilobia daroat.  
Behar bada...  
Gaur, neure ahalegiñen ostean,  
lañoak inguratu nau  
eta kausa galdu bat, bertan behera itzi bat  
ete garan zalantzak  
txistu egiteko gogoak kendu deustaz  
une berean.

\* \* \*

Guzur zahar bateri harria jaurtirik  
neure gelako kristala apurtu egin dot.  
Hartu dot, gero, neure txistua  
ta leihora urten dot doinua joteko: errealidadea.  
Errealidadea pentsatu dot luzaro  
neure txistu honen doinuagaz, eta kaletik joan diran gizonak  
zoroa deitu nabe.  
Eznaz bapere harritu.  
(Ezbait gara errealidadean bizi!)  
Guzurra gunetaraino sartu jaku,  
geurea egin dogu.  
Libertadea esan deuskunean  
sabela entzun dogu...

Ez gara ez, barriztu dot neure txistuagaz,  
errealidadean bizi,  
iñoren ametsetan baizik.

Iñok amestuta, ames guzurrezko baten,  
—arren apari ihuin baten—  
usteltzen gagoz, zirkiñik barik.  
Ta ames honetan mugituz edo arnasa harturik  
—bake faltsoan, barriro diñot, konorte barik—  
nire olerkia sekula eztau ulertuko  
ames bako gizonak.

Azkenean, ezin besterik, neure txistua erdibitua erdibituko dot  
eta jaurtiko deitsadaz zatiak  
neure leihopetik lehenengo igaroten dan guzurtiari.  
Eta gero, urrengoari, ez banau ulertzen,  
samara salto egingo deitsat  
eta ito egingo dot bertan.

Nire zoria hain ximplea izanik  
handik igaroko dan urrengo gizonak  
jaramon egingo deust.

Bitartean,  
neure txistu zahar hau joko dot  
eta biziko naz egiaren amesean.

Mamu bat bezela urtengo dot gabaren erdian  
gaur eta biharko egunen artean  
eta esango deitsat lo dagonari:  
Iratzartu zaitez, ordua da-eta!

Ibiliko naz, ibili, bakerik hartu barik,  
eta arin, ñok eskua jarri ez deistan,  
eta haizea bezela leku guztietan



berba egingo dot esanaz:  
Iratzartu zaitetz, ordua da-eta!  
Idigi eizuz begiak, arin,  
osotu eizuz egiak, arin,  
ezagutu eizuz zure iturriak,  
ezpabe berandu izango da-eta.

Hautsa lez zabalduko naz  
neure herrian —bihotz zapaldua,  
birrindua, haustua dot eta—,  
eta metro bakoitzean  
santzo bat jaurtiko dot ahal dodan erean:  
Iratzartu zaitetz, gizona, ordua da-eta!  
Eta neure herria biztu dadiñean  
bihotz bat irabaziko dot, ezhilkor egingo naz,  
Beragaz biziko naz-eta.





## **Julian lekuona**

*Gipuzkoako Oiartzunen sortu zen, 1938-ko uztailaren 18-an. Beste poeta handi baten anaia da: Juan Mari, Mingura gaur-en egilea. Apai-za hau ere. Priestley-ren Ertzaina etxean eta Tennessee Williams-en Kristalezko zoo antzerkiak euskeratu ditu. «Ez dok amairu» taldekoa da eta kanta berri asko sortu ditu. Kantuz diska bat ere badu.*

## **HILTZAILE BAT BEZELA**

Hiltzaile bat bezela hemen naramate,  
bi eskuak loturik mundutik aparte.  
Errurik ez dutala azaldu nahi nuke  
egia nahi dunantzat emana dut merke.

Egia esan eta, zigorrez erantzun,  
gure bizkar moretan diteke irakur.  
Egia utzi eta hobeto da entzun  
munduak esandako zortzi milla gezur.

Nola nahi dala ere egirik ez utzi  
naiz zigorrez laztandu zure gorputzari.  
Gure eginkizuna eman munduari  
egiak gihartzen dun indar berri hori.

## **ELIZA POBREA**

Eliza pobrea, Eliza pobrea,  
danontzat hobea.

Moztu kardenalen arropak,  
moztu torre luze zorrotzak,  
moztu obispo kotxe luzeak.

Kendu urre eta pitxiak,  
kendu kristau diferentziak,  
kendu ministru diru-zaleak.

Nun da estalpean jaioa?  
Nun da Gurutzera ihoa?  
Nun da Nazaret-go langilea?

Ager aski da Jaungoikoa,  
ager berarekin nahikoa,  
ager Eliza arpegi jatorra.

### **EGIN KARRAXI!**

Bideetako harriak, egin karraxi!  
Herri barruko zuhaitz zikinduak,  
kaiioletako txori marrantatuak,  
señoriten zakur perfumatuak,  
ibaietako ur apartsuak.  
Egin karraxi! Egin, bai, karraxi!

Libertaderik gabeko gizonak,  
nagusiak esplotatutakoak,  
diru-truke saldutako fulanak,

zer-esanaren bildur zeratenak,  
jaio baino lehen enterratuak.  
Egin karraxi! Egin, bai, karraxi!

Iñoren menpe zaudeten arrazak,  
fusilen bildur zeraten herriak,  
hautatzerik ez duzuten nazioak,  
propagandak burua antzututakoak,  
goseak hiltzen zaudeten guztiak.  
Egin karraxi! Egin, bai, karraxi!



## **mikel lasa**

*Donostian jaio zan 1938-ko irailaren lehen egunean, baina Getarian igaro zuen bere gaztaroa. Zientzia Ekonomikak estudiatu zituen eta orain Friburgon bizi da. Zeruko Argia-n kolaboratu izan du hizlaur eta Egan eta Olerti-n bertsoz. Poetarik hoberenetako bat bada ere, bere lanak urri dira.*

## ZORIONA, ZORITTOA

Kantatu nahi dut kanta bat

axola gabe,

inorentzat,

haizearentzat behar bada

behar bada itxasoari.

Edozein *blue*

azkenengo modako airea,

oxkira honek ene gorputzean iraun artio

eguzki eskax hau izkuta artio

(Dios, zer da zoriona, zorionttoa, atsegina?).

Minutu batean ardurarik gabe egotea minutu hontan

inxtantearen laburrunean.

Edozein gauza zoriona da

zorionttoa

besterik ezean.

Edozein une ona da bizitzea.

Edozein kanta axolik gabe kantatzea:

koblatzen dutalarik

aire banal bat

zaude lo'k'harturik

gauazk'ametsa bezela

ene kantua zautzula.



## TXORABIOA

*Oh juventud terrible, oh terrible juventud!  
corazón vacío!*

Ez da ezer; ez da egia.  
Kontra nagona naiz  
kontraren kontra  
ta iñor ez da nere alde.

Gauerdian nago  
erromantikuen ugartean  
izatearen muga  
mugaren muga.

Erromantikuen ugartean  
eta Sade-ko markesaren gazteluan.

Gauerdian nago  
ta hilak ditut lagunak  
Aragón gaztea, Tzara  
Leautréamont, Lelian gizarajoa  
Kafka  
eta Baudelaire begirada triste.

Gauerdian nago  
ta itzalak ditut lagunak  
bakarrik ez naizen  
sekula sekulakotz.

### **ESPERPENTO**

Ihauteri da  
ta ihauteri gauean  
kale ixiletan barna goazela  
ipar-aldeko hiri haundi honetan galdurik  
burdelak ikusten  
larehun pesetakoak ta hirurehunekoak  
gure boltza urriarentzat naikoa ehunekoak.  
Denak dira emakumeak  
ta gorputz uxatuen xarma ustela billatzen dugu.

Mauka ta mauka ar-emeak  
izorkeria egiten eliz-zaharreko paret-bazterrean.  
Berdina da bakardade honetan  
arpegi ederrak hala itxusiak  
emakume denen arpegietan  
halako animalikeria somatzen dut  
zoramena, arpegi-idorra, mirada fijoak.

Ihauteria da, ihauteri gaba  
ta inork ez daki bakoitzaren bakardadearen berri.  
Argi bakoitza itzalean hiltzen da  
agoni ixilean,  
nola Kristo profanatu hori, bilutsik  
bide bazterrean, hain desanparatuki etsia  
agonian, infernuetara jetxia  
hirugarren egunik gabeko Kristoa,  
sinisten dut.

Ta argiak millaka izanik ez dute argi egiten.  
Tarteka gaua da jabe.

ihauteri gabeko hirurak eta bost inguruan.  
Hala gu, hala gure bakardadean



## jose antonio arze

*Gipuzkoako Usurbil herritxoan jaioa, 1939-ko apirilaren 6-an. Oso gazterik, estudioak utzi eta Ingalaterrara joan zen eta han bizi zen-bait urtean. Antxinako «txalaparta» berbiztu du eta «Ez dok amairu» taldekoa da. Zeruko Argia eta Egan-en idatzi du «Harzabal» izenez, eta hitzaldiak eman ditu euskal musika-gailueri buruz. Bere poema liburua: Isturitzetik Tolosan barru, Donostia-Zarautz, 1969.*

nera ama hil zait  
lanak itota.  
lanaren amoreagatik  
hil zait  
zertarako dan bizitza  
jakitera iritxi gabe

izeba ere hil da.  
era berdiñean  
hil da izeba

\* \* \*

zuhaitzak? gizonari itzala emateko  
gizonentzat muebleak egiteko  
abereak? gizonaren gurdiari tiratzeko  
eguzkia? gizonaren azala beztutzeko  
illargi ta izarrak? gizonaren maitasun gauak apaintzeko  
arrainak? gizonak arrantzatzeke

dena,  
gizonen zerbitzurako  
ta gizona,  
gizonaren zerbitzurako, ez?

\* \* \*

laister zingurrientzako ere  
ez dugu utziko lurrik;  
hil ala bizi  
ormigoi ta plaztiku tartean  
eratu beharko dute

sugeak  
txirristagatik  
ez atzera ta ez aurrera  
datorkioten heriotzari so  
asfalto gainean

txirtxillatuko  
ditugu  
astoen beharrik ez dugu gehiago,  
nahiko haur sortzen bai ditugu  
jaio baino lehen

uztarperako izendatuak:  
haur gizenduak  
koipetsu bihurtu arteraino;  
erastun eta puntilez josiak;  
gero eskoletara bialduak  
xos asko eta gehiago  
nolaz egin  
ikas dezaten:  
—«A zer asto ederrak,  
beste hoietan patxara karraitzeko.»

\* \* \*

*EZaren korrika saioa*

EZ egin horlakorik  
EZ maita halatan  
EZ pentsa hartaz  
EZ edan hortatik  
EZ bete zure nahia  
EZ mintza gauza hoietaz.

zezena atzetik,  
denak korrika,

anka-motzak deihadar: «EZ korri, okerrago dezute-ta...»



## **luis maria mujika**

*Lizartzan (Gipuzkoa) sortua, 1939-ko urriaren 10-ean. Aita Sakramentinoa. Arnas eta Olerti-n argitaratu ditu bere poemarik gehienak. Gainera, poesi liburu bi argitaratu ditu: Bide-giroak, Bilbao, 1963; Urdin eta Burni, Donostia, 1965.*



## **GIROAN...**

Udako arnasak  
giroan igeri,  
siesta-ametsak,  
ardiak loti.  
Maitasun ixil,  
usaiak jostari,  
fruta berazko  
ahogozo guri.

Idealaren  
uda gizen,  
poza,  
—irabazpen—,  
udaren fruta  
heldu ta  
goza.

Pasa zan garratza,  
pasatu ekaitza,  
iritxi txaropena,  
goizetu arratsa.

Han, goian, dana  
ez da zaborra,

goiko metala  
ez da zigorra.  
Iritxi naiz pakera,  
beraz ezkontzera.  
Alaitasun argal,  
itxu,  
hauskorra.

Itxaropenak bihotza  
pozera darama,  
ni olatuen gorrotoeri  
begira ta begira,  
animak lodiagoa  
barrengo atsegiña.

Idealaren  
uda gizen,  
poza,  
—irabazpen—,  
udaren fruta  
heldu ta  
goza.



## **jose azurmendi**

*Gipuzkoako Zegaman jaioa, 1941-eko martxoaren 19-an. Aita Prantziskotarra. Gaur Alemanian da Filosofia eta Psikologia estudiatzen. Garai batean Jakin-en zuzendari izana. Euskal aldizkarietan maiz kolaboratzen du baina Olerti-n argitara ditu poemarik gehienak. Hala ere, asko ditu argitaratzeko, zeren oraindik argirik ikusi ez duten bi poesi libururen egilea bait da.*

**PROMETEO MIXERABLEA**  
**(heroiko ez zana)**

Gizona mixerable da  
gizon izaten hasteko  
eskubideen deklarazio bat behar badu

Gizona ben benetan mixerable da,  
Jainkoaren errebelazinoak  
egia izateko Eliza bat behar badu  
zaintzaile.

Zer haiz ba! Ez zekiagu  
begiz begi batak bestea  
begiratzen-eta.

Naturalezaren hiltzen doan  
kreatura,  
gizona.  
Hi —esaten diat.  
Ze ni ez nauk konzeptu bat,  
ez nauk gizon.  
Ez zidakean definizio batek  
esistentzia eman.  
Neu bakarrik nauk,  
sahets guztietatik ebakirik.

**GIZONA: 1968**  
**(Prometeo trixtea)**

Oauso batera daukak  
hire azkeneko judizioa.  
Han duk negarra ta nekea,  
han duk egarri handia  
ta ura eskuen puntan  
ta ezin ahoratu.  
Juzgaturik hago, gizona.  
Jaio hintzalako, heurrekoa haizelako,  
munduko ohiturengatik bildurtu haizelako,  
amodioagatik birjina bat bezela.

Heure balore guztia batu ta gero  
heure deretxoa deklaratu dukelako,  
(gizon bat zan Kafka)  
juzgaturik hago eta kondenaturik.

**GIZONA: ESISTENTZIA 68**  
**(Prometeo burdinetan)**

Ezin sartu zaidak seriotan buruan  
norbait haizela.  
Libururen batean ikasi haut.

Ezin dut ez dit nahi  
jendeongandik defenditu.  
Abotsak entzun nahi dizkiat.  
Infernuetan. Zeruetan  
behera.

Hik nahiago duk gezur txuria  
egia trixtea baino.  
Nahiago duk egia baino konforta.  
Nahiago duk galderaren ajedreza baino  
obedientziaren jakematea.

Hi ez haiz nire gizona,  
bakarrik gaudelarik  
hitzegiten diodana.  
Kalean bahoakit ere,  
mintzatzen ez banatzaik ere.  
Ez zekiat, agian  
nireak ez dik gabardinarik jazten,  
ez zekiat ondo zergaitik,  
bainan hi ez haiz nire gizona.

Agian neure kulpa duk,  
agian ez baizeukak nireak  
esistentzia 68-rik.

Agian ez zeukak haragi konkretorik.  
Agian gizon bati mintzatzen zaiok  
gizon hau.

Edo ta agian (ez zekiat haragi hau  
esistentzia naufragaturen batean  
ez ote zan galdu)  
esperantza bati bakarrik.







## **paulo iztueta**

*Berastegin (Gipuzkoa) sortua, 1941-eko martxoaren 22-an. Aita Sakramentinoa. Bere ikastaroak Madrilen eta Erroman gehitu zituen. Aldizkari askotan eman ditu bere lanak, eta poemak, batez ere, Olerti eta Egan-en. Poesi liburu bat du argitara gabea, eta bertatik Mailuarekin deritzan poematarik hartu ditugu egunkari eran eginikako zati hauek.*

## HITZOK

*Egunak 25.*

Ez ta ez! Ez noakizu aurrerago!  
Zaplaztekoa erantsi didate;  
bortizki mexatu binaute  
ixildu nadin derrepente...  
Profeta bat omen nirudien,  
ta etorkizunak deus enekin.  
Oraingo ipur-zurikeriaz niarduen  
eta hortzak erakutsi zizkidaten!  
Farsanteak marruka ari dirade,  
gezurra dariotela oro debalde,  
ziraunaren ahotik agortutzeke.

## ATZO

*Egunak 28.*

Nahiago nuke atzera bi pauso egin.  
Igaroaren jarrai itxaropenak  
narama aintzinako jatortasunera;  
hor baitago «Hutsaren» hazia,  
han *nitasunaren* jaiioherria,  
han lurpera behar ditut nik  
soineko ezurrak eta hautsak,  
jaso nazan sorburu-osiñak,  
betikotasunaren hilobiak!

Hurrutiago abendats,  
hurrutiago ene aztarna,  
harexeago esistentzi bat;  
eta sakonaren magalea  
inguratuz «Gu», «Denok»,  
«Hutsa», Jorge Oteiza.

Lurrean etzanda  
entzunez nago  
orduko sinfonia...  
gaurko habarrotsa...  
...eta etzaida sartzen ohiartzuna  
belarrira; bai lur-zolaren dardara.

## BIHAR

*Egunak 29.*

Aitaren kutxa emanen zaio behartsuari,  
Jaunaren barkapena pekatari otsanari.  
Egizaleak izanen du Erreinua;  
gezurtiak ba-duke inpernua.  
Noan, gezur-mamurik gabe, gizonen eiztari;  
hoiengan arkitu bainezake Goikoaren argi.

ORAIN

*Egunak 30.*

Noiz arte nagoke deika?

Noiz arte entzun-bera?

Nire etxean itzali zen bakea;

arrezkero ezta sortu eguzkia.



## **martin garin**

*Olaberrian (Gipuzkoako Goiherrian) jaioa, 1944-eko maiatzaren 10-ean. Apaiza. Apaizgoa Donostian egina du eta Politika Zientziak Madrilgo Unibersidadean. Zeruko Argia-n inoiz idatzi du, eta bi poesi liburu argitara gabeen egilea dugu. Poema sozialok gihartsuak dira.*

## GAUR...

Gaur  
nik, nahi nuke,  
zerura begiratu,  
lurra hauts egin  
nere eskuetan  
eta zabaldu,  
goian,  
zeru ondoan.

Gaur  
nik, nahi nuke,  
odolean sentitu  
nere Herriaren ohiuak.  
Banatu euskal  
ezur zaharrak, umeenak, gurasoenak, emagalduenak,  
apaizenak...

Eta  
Erre, bi harri zahar  
egurtzien  
garrarekin.  
Sentitu,  
ezur zaharren  
idatzi gabeko  
istoria.

Gaur  
nik, nahi nuke  
ez jakin  
nola  
utzi zituzten  
euskaldun haiek  
beren ezurrak.  
Ez jakin,  
nola  
hil ziran. Askoak,  
bakarrik,  
bakarrik, gau  
illun batean  
edo  
egunez besteekin batera,  
gerran  
edo konformidadean  
penaz  
agur egitean.  
Gar  
horrek  
esango dit,  
zer  
izan zan  
ezur haien  
pentsamentua eta  
sentimentuen  
mamia.

Gar  
horren  
keak,  
esango dizkigute,  
haien  
haunditasuna, eta  
haien  
begien samurtasuna  
umeen negarrari begiratuaz.  
Ezur zaharrak  
erreko dira  
denboraren  
zorromolloan.  
Eta,  
gero,  
haien,  
bizitzen laburpena,  
gu,  
euskaldun berriak!

### **U. S. A.**

Opari.  
Opalari itsua.  
Esku zikiñak odol ta lokatzarekin.  
Haundia indarrean.  
Jatorra legeen istorian.  
Negargarri orain aldian.



Erretakoak pilatzen dira itxasoaren ondartzetan.  
Hildakoak pilatzen dituzu.

Emakumeen gainean igotzen zeratenean,  
haundiagoa bihurtzen da zuen pisua.  
Gorrotoa azpian maitasunaren irudian.

Hoi en odola alperrik ixuria  
Ibaiak osatzen dituzte.

Heriotza.

Negarra.

Zorigaitza, erditzen dituzte zuen indarra  
neurri gabekoa dalako. Zuen  
umeak, gerraren ugaritasunean  
erdituak izan diralako, eta  
zuen sua,  
askatasunaren sua, zuen lurraldeetan  
bizi diran askorentzat, itzalia dagolako.

Indarraren eska bidean, herri batetik bestera,  
itxasoa  
bezela, hausten dituzu  
herritarren asmoak  
lanaren asmoak, eta, zergatik ez...?  
askatasunaren asmoak.

Zapaldu ditzazu herri guztiak.

Kendu.

Erre.

Desegindu.

Emakume ta gizon guztiak salgai jarri.

Oso indartsu zera.

Indarrak ez du legerik, baina bai  
akats bat.

Gudari guztiak beharrezkoak dira.

Gizon guztiak, anka-hutsik ibili arren, beharrezkoak dira.

Apaiz guztiak, beharrezkoak dira, diru zale izan arren.

Bainan beti

akats bat.

Eta

akatsa da norbaitek pentsatzen astea.

Eta

pentsamentu bakar hori

zabaltzea.



## **mañex pagola**

*Baxe-Nabarreko Landibarren sortua, 1941-eko ekainaren 28-an. Euskal idazle eta kantari zolia dugu. Apezgo estudioak egin zituen 27 urtera artio. Herria, Enbata, Gure Herria eta beste zenbait adizkiritan emanak ditu bere lanak.*

## EZPAIN XOKOAN

### I

Ezpain xokoan primaderaren irria  
Zainetan aldiz Aiten izerdi garbia  
Hola dabila egunez egun gaztia  
Indar gaitzean nahiz maitatu bizia.

### II

Eskual-gazteak irrintzina du botatzen  
Bazterrak oro dituelarik harrotzen;  
Oihu samin hau nork ez du hemen entzunen  
Eskual anaiak laster elgarri jos gaiten.

### III

Gure gogoek behar lukete zabaldu  
Bihotzek aldiz barne aldetik berritu!  
Eskual-Herriak beharko baitu azkartu  
Etsaien pera erori nahi ez badu.

### IV

Dezagun egin gure biharko Herria  
Laster berrituz gure ait'amen lur bera

Orduan zinez baita jautsiko gutara  
Goizik amestu dugun zorion ederra.

## V

Gazten artean bego irria nagusi  
Herrabideri beti eginez ihesi  
Batasunean traba behar da aurtiki  
bide berari nahi bagira jarraiki.

### **ITSASO ONDOAN**

Itsaso ondoan uhainer musuka  
ta mendi gainetan zerurat otoizka.  
Hor Eskual-Herria ari da galdeka  
Eskualdun guziek dezagun besarka.  
Maite duten semeak dezatela tinka  
lehengoen hitza berriz hartan finka  
oi! eskualdun seme ez maita erdizka  
bainan gora kanta gure errepika.

Idek ditzagun begiak  
zabal bihotz hertsia  
eta ikus zoin amultsua  
dagon Eskual-Herria.

Eskualdun semeak eskuara badaki  
erdarean ere trebe ta polliki  
gizon jakintsuna hor bada ageri  
horra eskualduna nausi kaskoinari!  
Etorriko dea bazkoi berrikari  
bere gaintasuna Eskual-Herriari?  
Oi entzule maite, ihardetsak huni  
bihar'e eskualdun nahi haiza bizi!



## **gexan alfar**

*Urepelen (Baxe-Nabarre) sortua, 1941-eko uztailaren 21-ean. Euskal letretan ezagunagoa da Gexan Lantziri eta Xemartin izenez. Herria, Zeruko Argia, Gure Herria, Enbata eta beste zenbait aldizkaritan argitaratuak ditu bere lanak. Goiztiri-ren bulego lanetan aritzen da.*

## **HERIOA!**

Nunbait hurrun  
tiropean hiltzea  
edo oto baten barnean  
bizia galtzea,...  
Mendiko arrokatik eroiztea  
edo etxean mundu hau uztea,  
toki guzietan dago heriotzea!...

Herioaren indarra  
ezin ukatuzkoa...  
Egun guziz mundu huntarik  
jendea trumilka  
ez ote daramakigu lurpera?  
Sendimendu gabeko herioak  
guzieri berdin du emaiten: ziloa!...

## **BAKE OIHU!**

Oihu eginen dut bai oihu  
nun nahi eta noiz nahi  
egiazko bakearen alde!

### I

Indarrez eta zuzen kontra jarri  
bakarrik nik ez dut nahi



zuzentasunik gabe.  
Egun bakea dugu galgarri  
Injustizi guzien gain estalgi!

## II

Zertako eta zertaz oihu egin  
guziek adi dezagun  
zuzentasunik gabe  
ezin dezakegula herrian  
egiazko bakerik zutik eman!

## III

Herrien eta gizalde guzien  
arteko bakebidea  
zuzentasunez eta  
libertatez da moldatua  
maitasunez delarik azkartua!

## **MENDI MENDI!...**

Mendi mendi mendietako  
bakea libertatea  
artzainaren ontasuna  
zorion maitasuna!

## I


Artizarra gora zeruan,  
goiz argi urratzean,  
jadanik artzaina mendian  
makila eskuan,  
zuriko aldean,  
artaldeak derama, alan, alan!...

## II

Artaldeak dío artzainari  
emaiten lan ugari!...  
Bainan osasuna dario,  
mendiko gizonari,...  
xoriak kantari,  
mendi, oihan, zelaiak ikusgarri!...

## III

Mendian gora dauka ber'etxola,  
estalgitzat du tola,  
arrasuak xuri-xuriak  
goizeko iguzkian,  
laster du irria,  
mendiko artzainaren jauregiak!...



## **beñat sarasola**

*Lapurdiko Sokoan sortua 1942-ko uztailaren 9-an. Zuberoako Domintxinen dago maixu. Herria, Txantxikitin eta beste zenbait aldizkarritan argitaratu izan ditu bere poesiak eta artikulua.*

## DONIBANEKO PORTUAN

Donibaneko portuan  
Uraren gainian  
Geldirik dago  
Husturik dago  
«Eskual-Herria» (1)

Untzi horren zortea  
Zoin den gure  
Herriaren idurikoa!  
Nagusiek egin zuten  
Diru biltzeko on zela.  
Berdin dira gure  
Herri-gizonak  
Gure herrietaz baliatzen.

Donibaneko portuan!...  
Untzi horren zortea  
Zoin den gure  
Herriaren idurikoa.

---

(1) “Eskual-Herria”, Donibane-Lohitzuneko itsas untzi baten izena da.

Arrantzaleak dira  
Lanik gabe gelditzen  
Berdin dira gure  
Herri gizonak  
Gure herriaz baliatzen  
Bainan ebasleek  
Berena Ez! zaukaten.

Donibaneko portuan!...  
Untzi horren zortea  
Zoin den gure  
Herriaren idurikoa.

Eskualdunak dira  
Galduta gelditzen  
Holako nagusien  
Beharrik ez dugu!

Donibaneko portuan  
Uraren gainian  
Geldirik dago  
Husturik dago  
«Eskual-Herria».





## **jose angel irigaray**

*Iruñen sortu zen 1942-ko urriaren 9-an. «Larreko»-ren biloba eta Aingeru euskaltzainaren semea. Bere ikastaroak Nafarroako huri nagusian egin zituen eta medikua da. Zeruko Argia-n kolaboratu du, eta «Ez dok amairu»-ko kantari taldearen zuzendarietarikoa bat da. Poesia liburu bat du argitara gabea.*

## L A N A

Gizonak  
lan egiten du  
andreak  
lan egiten du  
gehienek  
lan egiten dute  
lan egin  
norendako?

Egun lana  
batzuek guri emana,  
lurrarekin jasotzen dana  
batzuen aberastasuna  
guk ezin balia.

Gauden lantegian  
gu eta besteak,  
egiten dugu lana  
egunero eta urtero  
lehen, orai eta gero.

Egun lana  
bizitza,  
digute eresia,



nekea, izerdia eta lotsa  
lotsa eta lotsa,  
bainan hauk guztiak  
dagotzi estaliak.

Ausartuko ez ote gara  
lana gureganatzen?  
bainan horren jabea izateko  
hortarat heltzeko jakin dezagun  
zer egin behar dugun.

## **NAFARROA**

Nafarroa  
nere sort-herria,  
beregana du Euskal Herriak  
betidaniko erroa.

Gizon erduek dute altxatu  
zure izena,  
gizon erduek ba zekiten  
beti nafarrak izaten,  
eta herria  
beti  
Nafarroa egiten.

Nafarroa  
hain zuhur  
eta hain eroa.

Zure argia  
zure baitaren baitan dago  
erroaren erroan datza,  
zure nortasunaren  
berezitasun handiengan.  
Nafarroa  
beti arroa.

Jakin behar ordea  
zerengatiko arrokeria.  
Ohargabeen,  
zure burua duzu  
bidagurutze latzean.  
Ekialde eta mendebaldeko haizeak  
firri-farra  
nafarra,  
zure ondotik dabilta,  
lili gozoaren ondotik  
erleak dabilzan bezala.

Atera-bidearen nabaitzeko,  
aski dukezu  
zure barnearen behatzea  
agramontesa.

Kantore zaharraren hitzak  
aditzen dituzuia?:  
«Nafartarren arraza  
hila ala lo datza»?

Nafarroa,  
zure gainean nagoelarik,  
naiz pixka bat gehiago  
osatzen  
eta nortzen.

Nafarroa,  
egin zutena  
eginten duguna  
eta eginen,  
Euskal Herriaren erro zaharra,  
oraiko arnas berria,  
ez da hilen.

## **HERRI BEHERA**

Herri behera  
herri behera  
daukazu  
bihotz minbera.  
Gailurrik ezak  
zabalerak;

zabaleretan  
ifar aldeko mendi zuhaitzuenetan bezala  
begien trixturak  
du aurkitzen atsedena.

Zure orru ozena  
jota  
errotik sorturikako  
ahuena  
leialki eta indartsuki ezazu  
bota  
eta nekazarien mezu sakona  
konta.

Herri behera  
herri behera  
daukazu  
bihotz minbera.



## **mikel a. intxausti**

*Igeldo (Gipuzkoa) du sorteri, 1942-ko abenduaren 10-ean. Azurmendi izan behar du bere lehenengo deitura. Sorbonan ari da Filosofia eta Letrak estudiatzen. Deustoko Ekonomia fakultadeak 1968-an eratu zuen «Unamuno» izeneko ipui sariketan bigarren gelditu zen bere Sumarino orria-kin, eta urte berean lehen poesia saria Donostiako «Agora»-n Euskal hilobia-rekin. Lan hau argitaratua izan da Euskal Elerti 69 bilduman, Bilbao-Donostia, 1969.*

Ni enaiz poeta  
iturria idekiz  
ene poesia  
prosa da;  
nerea  
bizitzaren prosa zakarra.

Ametsaren hariak lotu zidan bizitza  
inkonszienteak estali ninduan amen fitean  
ni enaiz ni  
gaineko ni ez ezagun baten gurdian omen  
akulupean zigorturik ene poxpolo-kaja  
poxpolo buru amets pean  
deusan.

Zulo zikin huntan utzi nau itsasoak, bainan ez da nitaz  
ahaztu, agian bihar eramango nau berriro  
nora?

Hori ez  
enaiz hizkuntza biz baliatzen  
izakeraz bizatitu banaute  
bortxaz hil nahi dut bat  
bestea bizi dedin.

## HAURRA:

txori?  
txoria al zera?  
ni erreka naiz ta goitik behera noa  
igesik  
saltoka  
harriak bustiaz.  
arratsaldero hemen zaudela diote ene aizpak  
zu zera?  
zu, txoria?  
ni erreka ta banoa, ez gindezke gehiago mintza;  
min dut gaur  
min zait zakurra.  
entzuten al didazu? txori?  
zakurrak ozk egin dit  
hemen  
giza zipriztin billa nenbilenean  
Edipo erresuma ta kultura banatzen dituan zuloan  
tabu-ren mugarritik ez urrun  
ozk egin dit  
hemen  
hizkuntzan.  
adio, txori, sarri arte. itsasoak ittoko nau,  
bihar datorren aizpa gaztearekin mintza zinazke  
adio... adio...

...ETA HARRIAK EGUNERO DATOZ  
BEHERAKA.



## **jose m.<sup>a</sup> agirre**

*Ataunen (Gipuzkoa) jaioa, 1943-ko ekainaren 29-an. Ekonomia estudiantzen, lehen Suizan eta orain Beljikan ari da, Zeruko Argia eta Jakin-en argitarazi ditu zenbait lan. Sartre-ren La P... respectueuse eta Camus-en L'Etranger euskeratuak ditu, argitaratzeke.*



## **EGIA GARESTI DALA**

Heldu zen udaberria  
kantuz hasi henaria.  
Lagunak preso jauzi direla  
iritxi zait gaur berria.

Urtu ziraden elurrak  
Narrotu otso-zakurrak  
Oraino ere minberaz daude  
ene lagunen hezurak.

Lanuak dire odoldu  
gizon prestuak ixildu  
Behin berriro gure Sisifo  
maldaz behera amildu.

Kontzientziak urratu  
«Bakea» dute saltu  
Lau orma artean egin dituzte  
bizirikan enterratu.

Indarra dela morala  
ordena dela kabala  
agertu dute gizonarentzat  
egia garesti dala.

## ERNESTO

Galtzairu oker ezina  
Kondairaren erdi-mina  
Gerlaz suntsitu beharra dela  
lehenok gerlaz egina.

Ezker nagia European  
aberatsa ametsetan  
Hiretzat erruz laudorioak  
Parisko snak-barretan.

Izarrak oro itzali  
Vietnam dena kiskali  
egia faltsiz ohi bezala  
begiak zaizkit estali.

Uso billa kabirotia  
basoan kexu leotia  
Bizi direnak jantziko ditek  
hildakoaren koroia.

Harri arotik burnikora  
injustizia beti gora  
Ez duk zillegi zapuztutzea  
haundi maundien loa.

Posible dadin ezina  
gizonaren larrimina  
nundikakoa ote diagu  
paradisu baten grina.

Hezur haragi lurean  
Txe heriotzan atzean  
Testamendua banatu ditek  
kide-etsaiak zotzean.



## **xabier lete**

*Oiartzunen (Gipuzkoa) jaioa, 1944-ko apirilaren 5-ean. Ofizinista, batxillerra egina. «Ez dok amairu» taldeko kantaria, 1966 eta 1967-ko «Agora»-ko poesi sariak eraman zituen. Bere poema liburuak: Egunetik egunera orduan gurpillean, 1968, eta Arrastoa eta itzala izeneko liburuxka argitara gabe. Horrez gainera kanta diska baten egilea da.*

## BIDE EZKUTUA

Harria, egurra, sua, ura

burnia

odola

trena

barkua

laiñoa

lau piku

sei eltze

tamiza, katea, polea

litro erdi bat ardo

Naparroatik

ekarria.

Ideak, pentsamentuak

koraje gutxi,

Aizpurutxo-ko erretore gitarra jotzaillea

eta

bere anima

kondenatu nahi duten

zazpi milla etsai.

Alkia

eliza

bakea

dirua,

bankero jauna,

atoz

peka-

taria.

Kartzelako atea laixter  
itxiko dituzte.

Giroa, kidea, bolara,  
proposizioa  
oposizioa  
leiaketa,  
ikatz almagazak  
eta morala:  
zeharo debekatzen dizuet.

Gure izakera jatorra,  
meza  
ezpatadantza  
euskera gaxoa  
dibidendoak  
belarrimotzak  
koreanoak  
hiru milla peztako  
soldat ugaria  
amurraiak  
elkarri mokoka  
beste harek  
esan  
bezala.

Merkatu Batua,  
zelofan papera

diskursoa  
promesa  
programak  
sistemak  
etxeak sindikatoak bakea  
ordena.  
San Agustin-en filosofia.  
Kontuz ibilli  
komunismoarekin,  
balio dezuna  
ordainduko dizut  
ez gehiago  
ez gutxiago.  
Ni ez nauk politikan sartzen...

Laratzean sua  
baratzean tipulak  
txuleta jatea  
bizitza lasai eta ederra  
alajaiña,  
alajaiña.

Marmita bete esperantza,  
maitasun berri bat bihotzean.  
Etorri dedilla hoiak  
kendu nahi dizkidan  
majoa.

Mundu gaxoa  
hain zahar ta hain gaztea,  
oraindik  
ikusi behar  
dituzutenak.

### **ASARRE EGON NAHI NUKE**

Asarre egon nahi nuke  
bihotza betean  
oraindikan gaztea  
naizen bitartean,  
nik sinisten ditutan  
egia trebeak  
biribilka ditezen  
erdiko kalean.

Ez dakit gauz askorik,  
ez nago seguru.  
Bizitzeko baditut  
oraindik bost ordu.  
Hiru pasa nituen  
bideak billatzen  
eta beste hainbeste  
lehengoak urratzen.



Nundik nora ni Joan  
ez da gauz argia,  
bainan aserre nago,  
hori da egia.  
Eta egon nahi nuke  
bihotza betean  
begiak betean  
eskuak betean  
oraindikan gaztea  
naizen bitartean.



## **ramon saizarbitoria**

*Donostian jaioa, 1944-ko apirilaren 21-ean. Gasteizko Maristetan egin zuen batxilleratoa eta Ekonomikak estudiatzen ari da. Asko idatzi du Zeruko Argia-n. Egunero hasten delako izendun nobela bat du laster argitaratzeko, eta Poesia banatua izenezko poemak Euskal Eler-ti 69 liburuan argitaratuak dira, Bilbao-Donostia, 1969.*

## REQUIEM

«Requiem eterna dona eis Domine».

Bakea, bai. Emaiezu Bake Santua, Jauna,  
gorputz hilengandik libre hurruntzen diren arima  
guztiei.

Bakea Zeruan ala Infernuan...

Jan dezaten musuka gorputz hotza  
haren arima maite dutenak,  
horni dezaten lorez gorputz usteldua,  
busti dezaten malkoz bere hilobia...

Betirako atsedena gorputzik gabe gelditu den  
arimari. Espresiorik gabeko espirituari,  
ezpainik gabeko laztana,  
besorik gabeko indarra,  
mingainik gabeko hitza.

Baina

nik gaur hildako arimen alde  
nahi dut otoi egin. Jaungoiko Guztialtsu bati  
munduan gorputz bizietan hilik dauden arima guztien berpiztea  
eskatzen diot. Munduak hil dituan arima guztien  
berpiztea.

Ez da inoiz beroien alde errezatu,  
espiritu hilak,

ilusio deseginduak...

Bakea emaezu eta

ez zazu permiti.

Ez zazula horlakorik gehiago permiti.

Ez dezala inork ere bere arima gehiago hil,  
eta ezta munduari hiltzen utz ere.

Hainbeste heriotze ikusirik,

neroni ere erdi hilik nauzu

—ni diot eta dagoeneko

ez dakit ni naizen—.

Utz dezaion munduak bakoitzari

bokazioa jarraitzen. Arima duen bakoitzari

bakoitza izaten.

Eman, baita ere, bakea

—Bake Santua—

hoiengan zuten arimaren

heriotzea sufri ezin dutenei;

eman bakea, berpiztuko dituen

gerlarik ez bada.

Eta neri eman gerla;

niretzat gerlarik gogorrena;

arima gorputzean senti dezadan...

Senti dezadan beti

maitasunaren beroa

eta bakardadearen hotza.

Ez dedin hil hemen eta han  
bizitzen sentitzen dudan arima hau,  
udazkeneko arrats honetan  
nire barnean, eta  
gizon guztien artean  
sentitzen dudan arima.

Eta noizbait hiltzea  
erabakitzen baduzu,  
noizbait tentaldia  
bera baino fuerteagoa bada,  
berarekin «ni» naizen baino  
indartsuagoa bada,  
hil bedi nire gorputza ere,  
ordurako ez bait du sentidurik izanen.

**EURIPEAN**  
**(Galli-ri)**

«Svizzera-l»

Euria une batean  
hosto gainetan  
gelditu  
eta gero  
lurrera erortzen zen...  
Viet-nam-en

bonbardeamendu itsuek  
jarraitzen zuten.  
Paris-ko estudianteek  
Sorbona hartu zuten  
eta  
hemen euriak  
jarraitzen zuen  
oraindik;  
Renault-eko  
langileek  
fabrika hartu  
zuten  
eta  
hemen oraindik  
euria  
hostoetan gelditu  
eta lurreratzen zen.

Euriak  
leihotiko kristalak  
indarrez  
astintzen...  
Ni eserita  
—tanta-tantaka—  
euriarekin batera  
hiltzen...  
Euri-pean  
jaso zuten preso

begiak erdi itxita  
ikusi nuen joater  
—pauso-pausoka—  
suintzar inkonformismoa  
heltzen.  
Euri-pean  
—mila urte  
inguruko tradizio  
errebolusionarioa, eta abar,  
eta abar—.  
Euri-pean  
—holako  
tanta lodiak—  
demokrazia  
konfederazioa  
kapitalismoa az-  
katasuna eta abar  
eta abar.  
Eta  
ni ere euri-pean.







## **patxika erramuzpe**

*Neskatilla hau Alduden sortua da, 1944-ko apirilaren 16-an, eta orain Baionan bizi da. Kantaria. Hamabost kantutik gora eginak ditu, eta beretariko gehieneri Gexan Alfarok egin dizkio moldezko zenbait zuzenketa.*

## MAITA BETI BIZIA

Nere adixkide hoberenak  
utzi ninduten bakar-bakarrik  
neretzat ez zen gehiago  
ez iguzki, ez itsaso.

ez nuelakotz lagunik!...  
gogo tristerik!...  
Banindoan bakarrik  
ez nakin zergatik!...

Neretzat ez zen biharamunik,  
gertatua ahantzi ezinik  
nere gogo-bihotzean  
maitatua zen hotzean!...

Banindoan bakarrik,  
bihotza ilunik  
iduri ez biharrik  
ez nuelakotz lagunik!...

Bainan amets baten pare, oro  
gogotik baztertu nintuen gero!...  
Argi ahul baten garrak,  
eman daut bizi indarra!...

Ez, ez noha bakarrik,  
pitz hadi bihotza!...  
Johan nadin aintzin  
maitatuz bati bizia!...

### **OTXAGABIAN!**

Otxagabian, Otxagabian,  
amets egiteko herrian,  
gau ilargi xuritan,  
kurri-kurri ur hegian,  
abiatu nintzania!...  
Herstura min bat zitzautan,  
jauzi bihotz barne-barnian,  
ez zinelakotz enekilan,  
bakarrik nindohan gau hartan!...

Ilargia gora izanik zeruan,  
haren irria xuri zagon urean...  
Eta ni ordian,  
zure irria gogoan,  
jarri nintzan ur hegian!...

Ilargia xuri zen gau eder hartan,  
ura dirdir bazoan bere bidean,  
iduri eleketan!...

Ni han nindagon ordian  
beti zu ene gogoan!...

Ene burua zerurat altxatzian,  
lano artetik izar bat agerian!...  
Zu ez baitzintudan,  
oi ene sahetsean,  
zure izena nion eman!...



## **ibon sarasola**

*Donostian jaio zan, 1946-ko uztailaren 11-n. Injiniere ikasten arida. Zeruko Argia eta Jakin-en argitaratu ditu bere lanak, azken honetan saiakera bat ere bai Euskal-poesia gaur izenez, 1967. 1967-ko urte honetan «Lizardi» poesia saria irabazi zuen. Poemagintza izenez laister argitaratzekotan da bere poemok.*

Ipar-errefrau bat      Mingaina  
                                    Mintzatzen da  
                                    Eta  
                                    Egiak  
                                    Azken-judizioan erantzungo  
                                    Du  
Aintzin-ohar            gaur eguneko herriak  
                                    ene hitzak on-hartzen ez  
                                    baditu  
                                    biharkoari mintzatuko naiz  
                                    edo  
                                    etzikoari.

## **HIRU BLUERI BURUZ**

### LXVIII

Edonork galdetzen badizu  
nork idatzi zituen  
hitz hauek  
esan zaiozu ni izan nintzela  
hemendik iragan nintzela  
aldamenetara begiratu eta  
joan egin nintzela

LXXII

Nire izena Ulysses da  
nire amak ez zidan deiturarik eman  
hogeitabi urte ditut eta hiru pezta poltxikoan

LXXVI

Eguzki-pean jaio nintzen  
ene barraka ttipian  
hamabi urte bete geroztik laket zaizkit  
neska politak

'REN AZKEN KAPITULOA

Egoak zabalduz  
Euskal-Herria utzi zuen

Bere Jainkoa,  
bere aitaren Jainkoa,  
Isaak-en Jainkoa,  
Jacob-en Jainkoa  
utzi zuen

Hogeitamar denarioz  
saldu zuen bere lotsa ahalguztiduna

Kirie eleison  
Christe eleison  
Kirie eleison

Pater noster...

\* \* \*

BAI,... SEME BAT  
IZAN GENUEN NERE  
EMAZTEAK ETA  
BIOK...  
ASPALDIKO KONTUAK... BAI...  
SEME BAT...  
ORAIN DALA ASPALDI  
IZAN ZEN, DUELA  
URTE BATZUEK, URTE  
ASKO...  
GERO BETIKOA GERTATU  
ZEN...  
BETIKO HISTORIA ARRUNTA...  
ETXEA UTZI ZUEN... LAU  
URTE ZITUEN  
ETXETIK  
ALDE EGIN  
ZUENEAN...  
EZ OMEN ZITZAION  
LAKET GURE.



LAU URTE HAIETAN ASKO  
PENSATU OMEN ZUEN...  
GURE ETXEA UZTEA  
ERABAKI OMEN  
ZUEN AZKENEAN...

NERE EMAZTEAK  
PINUEN ORDEZ  
PAGOAK ETA HARITZAK  
LANDATUKO ZIRELA  
MUNDUKO BASO GUZTIETAN  
AGINDU ZION, JENDEAK  
EZ ZUELA GEHIAGO  
EZTULIK EGINEN KONTZERTUETAN

BAINAN  
ALPERRIK IZAN  
ZEN...

NIK EMAZTEGAIK  
(EMAZTEGAI ABERATSAK)  
EZ ZIRELA TXURIZ JANTZIKO  
EZTEI-EGUNEAN AGINDU  
NION, ATSO ZAHARRAK EZ  
ZIETELA TXAKURREI OGI-APURRIK  
EMANEN

(IN TRIBULATIONEM NOSTRAN  
ETA DAKIT ZER GEHIAGO)  
AHAL-GUZTIDUNAK EZ DITUZTELA  
SALOIETAKO GORTINEKIN  
MUSKIRAK KENDUKO ESAN  
GENION

BAINAN  
ALPERRIK IZAN  
ZEN...  
ALDE EGIN  
ZUEN...  
ATEA IRIKI  
ZUEN  
KANPORAT  
DOAN BIDEA HARTU  
ZUEN  
ETA  
ALDE  
EGIN  
ZUEN



## **frantzisko jabier kintana**

*Bilbaon jaio zan 1946-ko urriaren 13-an. Batxillerra bukatu zuen eta Zientziak, librean, estudiatzen ari da. Euskaltzaindiaren laguntzailea da. Jakin, Zeruko Argia eta beste zenbait aldizkaritan idazten du. J. Oñatibia-ren Método de Euskera radiofónico bizkaieraz jarri zuen. «Unamuno» izeneko ipui saria eraman zuen 1968-an. Bi nobelaren egilea da: Beste izakia, Bilbao, 1969; eta Noizbait nunbait, argitara gabea. Eta antzerki bat, argitara gabea.*

Gaztetan ames urdin  
ideial bat neukan  
osorik zoragarri.

Burua nagusitu  
egin jatan  
ta amesak  
ames dira  
guzurak lakoak.

Zeri oratu?  
Nori eutsi?  
Zergaitik hemen bizi?  
norako eginak garan  
ezelan ezpadakit?

Loak hartu ezinik  
aspaldi nengoan  
buelbaka izaren arte  
bakerik euki baga.

Nun argia topatu?  
Nogan dirdira ikusi?  
Zerua mutu egoan  
niretzako etzan hitzik.

Eneban ezer siñesten  
maitetasuna ezik  
Eleiza...? abadeak...?  
Jaun...goikoa...?  
Nagusien milla ipuin!!!

Halako batean  
Herria  
nigarrez  
aurkitu neban,

nire anaien mingarri.

Harrezkeroztik banabil  
ezpata hartuta hortik  
eten-gabe,  
burruka ixillez.

### **LIZARDI**

Lizardi, otoi Lizardi!  
nunbait haudan hori  
nire olerkari hori  
Udaberriko neskatz  
ihes egina ote zait?  
Lizardi, herriko semea  
udaberrikoa

mendien maitea  
hizkuntzaren senarra  
Lizardi... betikoa.  
Hire oihartzunak  
oraindik dantzudaz  
«Maite ditut gailurrak  
argiak ez beste  
Oi! egaztia banintz  
gaiñik gain nenbilke»  
Mendiak, itsaso urdin  
pago ta hareitz  
bakardadea...  
Maiteak ihesi  
ezta eguzkirik  
ez eta argi berorik.

\* \* \*

Zergaitik?  
Zergaitik, bai, zergatik  
berriro galdetzen dut nik  
zergatik eguna  
zait beltzitu neri?  
Zergatik, bai, zergatik  
jakin nahi nuke nik  
Zergatik hotzez nago  
berotzeko arropa barik?  
Zergatik, bai, zergatik

susmatu arren,... nik  
zergatik esperantza  
enuen galdu guztiz?  
Zergatik, bai, zergatik  
eztut humetako nigarririk  
Zergatik nik gauean  
eztakusat izarrik?  
Zergatik, bai, zergatik  
ezta trumoirik etorri  
Zergatik nauzu galduta  
zer egin jakin eziñik?



## **daniel landart**

*Baxe-Nabarreko Amikuze haraneko Dohostirin sortua, 1946-ko abenduaren 11-an. Tipografua da eta Baionan bizi da. Gazte, Herria eta Enbata-n agerrerazi ditu bere lanik gehienak; baitere Le Courier Journal frantsez astekariaren euskerazko orrian. Hiru antzerki idatzi ditu eta beste bi, García Lorca eta Brecht-enak euskerara itzuli. Bere poema liburua: ...Hogoi urte, Baiona, 1968.*



## MATTIN, ENE ADIXKIDEA

—Hola duk hiriko bizia,  
Ainitz lan, eta irabazi «haundia».  
Haatik ostatuak usu, ganbera kario.  
Karrikako emazteak, dena plazer, dena amodio...  
Hola duk hemengo bizia,  
Otoi ez nezakala gutizia.  
Aste guziz baititugu, bi ortzirale  
Zonbat egun ilun, zonbat ilabete trixte  
Ez deat bertzerik erranen, anitz gauzaz bainaiz ahalge.  
Ene etxeoak ikusten badituk, ez nitaz mintza.  
Edo bertzenaz errakotek, biziki ontsa naizela.  
Bainan Jainkoaz, ez erran bertzerik,  
Ez baitut ait'amer, egin nahi minik!  
Eskua tinkatu daut eta badoa...  
Kopeta ilun eta nigarrez gogo.  
Gau beltzean bakarrik, itsu-mandoka, bakarrik.

Mattin, ene adixkidea ikusi dut barda  
Geroztik, gogo, ilun, ari naiz pentsaketa.

## ARRATSEKO OTOITZA

Jauna, gaua da.  
Jauna, hor zirea, ene gau huntan?

Emeki emeki, zure argia joan da,  
Eta ordaintzat jin zako gaua.  
Gau ilun, gau beltz, itsusia.  
Ilargirik eta izarrik gabekoa.

Ohean nago, bulta huntan,  
Akitua, etsitua, pentsaketan.

Zendako lokar, bihar berriz iratzartzeko?  
Jeikitzeke eta egun bezalako  
Egun luze baten pasatzeko?

Beti gauza bera, lan bera!  
Jauna, aditzen nauzu?

Ene baitan, huts bat dut senditzen.  
Nahi nuke joan, denen ahanzteko,  
Nahi nuke joan, Jauna, bertze mundurat.  
Behar dut joan,  
Urrun, norat nahi,  
Bainan joan, espekatu.  
Zeri espekatu?  
Zuri Jauna, laguner, nihuri, ez dakit,  
Bainan joan.

Kurri nabila, gizon morkor bat bezala,  
Usaia badutalakotz, kasu egin gabe.  
Egun guzietan egiten ditut jestu berak,  
Bainan badakit debaldetan direla.  
Kurritzen naiz, jakin gabe norat noan.

Idea xuxenik ez dut gehiago,  
Memorioa galtzen ari.  
Hitzak espektatzen zauzkit  
Eta ez dute deus erran nahi.  
Ahapetik mintzo naiz edo batere ez.  
Ments bat iduri dut.

Segitu zaitut, Jauna, bihotza alegera,  
Nere sahetsean zinelakotz.

Bainan orai ohartzen naiz, gau beltzean,  
Desertuaren erdian, batere uste gabean  
Utzi nuzula bakarrik.  
Eta joan zira.

Oihu egiten dautzut, arraposturik ez ukaiten,  
Xekatzen eta deus ez hatxemaiten.  
Denak utzi ditut eta orai bakarrik naiz gelditzen.  
Zure hutsa, Jauna, ene sofrikarioa da.

Jauna, gaua da.

Hor zirea, ene gau huntan?

Maite nuzia?

Maite zituta?

Ahantzia ote nuzu, nik frangotan

Ahanzten zaitudalakotz, eta bazterrerat uzten?

Ala nitaz, aski baduzu?...

Jauna, eman otoi arrapostu.

Jauna, gaua da

## **BIHAR**

Bihar ; iguzkia, mendi gibeletik, agertuko...

Bihar ; itsasorat, arraintzariak, abiatuko...

Bihar ; ildo z ildo, laborariek, lurra landuko...

Bihar ; mendiz mendi, artzainak luzaz kurrituko...

Bihar ; ama gazteak, haurrari nigarrak xukatuko...

Bihar ; eskoletan, haurrek eskuara ikasiko...

Bihar ; gaztek, elgar hobeki maitatuko...

Bihar ; neskatxen ondotik naiz ibiliko...

Bihar ; langilek, gehiago irabaziko...

Bihar ; zaharrek, diru pittat, hunkituko...

Bihar ; Herri guziak libertatean biziko...



## **amaya lasa**

*Gipuzkoako Getarian jaioa, 1948-ko agorrilaren 8-an. Maistratarako estudiantzen ari da Donostian. Zeruko Argia-n maiz idatzi izan du hizlaur, baina bere poemarik gehienak argitara gabe ditu, eta beretarikoko batzuek dira honako hautatu direnak. Bere anai Mikel ondo eza-guna da poeta gazteen artean.*

kaiu erdi hilaren  
hegapean sartu ginen  
gure maitasun hila  
erdi hila bare  
bihurtu nahiean.

egunean  
desioaren gogoa hila.

gauean  
gogoa desiratua.

beti, ia beti  
nahi behar izan, bainan...

gehienean  
hutsaren hasarrean.

kaiuaren begiak begiratu nituen  
arratsalde brumatsu, hits hartan  
begi borobil haietan erantzun bat  
aurkitu nahiean.

kaiua nigana etorri, muxu bat eman eta  
hegarekin lepoa eutsi zidan,  
nere min trixtea goxatu nahiean.

eta haitz geldia, ixil hartan  
sartu nintzen,  
maite gogoa izpi bat ixil arazi nahiez.

Ohean  
narru gorri, eskuak han nituela  
argi itzalean  
ilunpearen izkutuan,  
amodioaren heriotzara ninjoen.

Ohe guztian bihurritzen nintzen  
maindireak eta estalkiak bihurritasunean  
nahastuaz.

pentsamenduan muxu bat  
pentsamenduekin bi beso bizkar gainean  
desioarekin, nahitasunean, laztan herioan.

gizon haiek  
beren indarrak, haragiak, lurra heriotza bihurtzen...  
gizon haiek  
izerdi saminean  
danak batean, bat eginda, danontzat mundu bat egiten  
ikusituan...  
lotsa sentitu nuen.  
ni, han, nere problemarekin,



nere pentsamenduarekin,  
nere biziarekin,  
ni, nigan aurkitu nintzanean...  
lotsa sentitu nuen  
eta nere aurpegia gorri-gorri ipini zen  
gizon haien aurrean.

buru hutsa  
buru huts harekin  
begiak higitzen nituen,  
nere gelako mila aurpegi diferenter  
so eginaz.  
Bizia balu bezala  
haren maitasun hilak.  
Eta aurpegiak nere ohera  
haren gorputza beroa  
ekarriko balirake bezala.  
buru huts, hotz harekin, hotzez  
zutaz amets egin nuen  
eta biharamunean,  
nere burua betea  
eta bere gorputza hurbil aurkitu nituen.